

LEHEN SEKTOREA

- 1.- Zer da nekazaritza?
 - a) lurra lantzea da, animalia eta pertsonentzako elikagaiak lortzeko.
 - b) lurra lantzea, industriarako lehengaiak lortzeko.
 - c) a eta b.
- 2.- Zeintzuk dira nekazaritza baldintzatzen dituen faktore fisikoak?
 - a) Biztanleriaren bolumena, nekazaritza-teknikak eta klima.
 - b) Biztanleriaren bolumena, klima, nekazaritza- teknikak eta erliebea.
 - c) Klima, erliebea eta lurzorua.
- 3.-Zer da iraupeneko nekazaritza?
 - a) ekoizpena nekazari-familien kontsumorako izatea.
 - b) ekoizpena merkatu ezberdinetan saltzea.
 - c) lurra lantzea da, elikagaiak eta lehengaiak lortzeko.
- 4.- Zer da merkatuko nekazaritza?
 - a) ekoizpena nekazari-familien kontsumorako izatea.
 - b) ekoizpena merkatu nazionaletan eta nazioartekoetan saltzea.
 - c) ekoizpena merkatu nazionaletan soilik saltzea.
- 5.- Ze nekazaritza-teknikak dituzte herrialde garatueta?
 - a) gizakien eta animalien lana.
 - b) lanabes tradizionalak eta makinak.
 - c) makinak, ongarriak eta berotegiak.
- 6.- Herrialde azpigaratueta nolako da nekazaritza?
 - a) %60a nekazaria da eta iraupeneko nekazaritza egiten dute.
 - b) Nekazaritzak biztanleria aktiboaren gutxiengoari ematen dio lana.
 - c) Errendimendu handiak ekoizten ditu, saltzea helburu delako.
- 7.- Lehenengo sektoreko jarduerak dira...
 - a) nekazaritza eta abeltzaintza.
 - b) arrantza eta baso-ustiapena.
 - c) b eta c zuzenak dira.
- 8.- Zer da abeltzaintza estentsiboa?
 - a) azienda aske ibiltzen da. Produktibitate txikia du.
 - b) azienda ukuiluetan hazten da (itxita). Produktibitate handia du.
 - c) azienda ukuiluan bizi da eta urtaroen arabera, lekuz aldatzen da.
- 9.- Ze arrantza mota dago?
 - a) Itsasertzeko arrantza baxurako arrantza.
 - b) baxurako arrantza eta alturako arrantza.
 - c) itsasertzeko arrantza eta alturako arrantza
 - d) guztiak zuzenak dira.

10.- Non egiten da alturako arrantza?

- a) kostatik gertu
- b) itsasertzean
- c) itsas zabalean

11.- Non egiten da baxurako arrantza eta zertarako?

- a) itsas zabalean merkatuan saltzeko.
- b) kostatik gertu merkatuan saltzeko.
- c) kostatik gertu eta norberaren kontsumorako.

12.- Zer da abeltzaintza?

- a) animaliak haztea, elikagaiak eta beste produktu batzuk lortzeko.
- b) animaliak haztea, elikagaiak lortzeko (behikia, txerriak, ardikia...).
- c) animaliak haztea, produktu ezberdinak lortzeko (larrua, artilea...).

13.- Nolakoak izan daitezke lur-sailak?

- a) Sail itxiak eta irekiak, biak ondo markatutako mugak eta hesiak dituzte.
- b) Sail itxiak hesiz mugatuta daude eta irekiak ez dute hesirik.
- c) Sail itxiak hesiz mugatuta daude eta irekiak ez dute hesirik eta lur sail txikiak dira.

14.- Labore aniztasun motak dira:

- a) Polilaborantza (hiru landare-espezie landatzea) eta monolaborantza (espezie bakarra landatzea).
- b) Polilaborantza (landare-espezie ezberdinak landatzea) eta monolaborantza (espezie bakarra landatzea).
- c) Polilaborantza (espezie-bakarra landatzea) eta monolaborantza (espezie asko landatzea).

15.- Nolakoa da habitat sakabanatua?

- a) eraikinak multzotan bilduta daude, herrixkak eta herriak eratzen.
- b) etxebizitzak landan sakabanatuta daude.
- c) eraikinak multzotan bilduta daude, laborantza lurrez inguratuta.

16.- Zer da latifundioa?

- a) lur sail txikia.
- b) lur sail erraldoia.
- c) etxez inguratutako lur saila.

17.- Zenbat baserri-eremu edo eskualde dadude Espainian?

- a) Hiru
- b) Bost
- c) Lau

18.- Nafarroan ze baserri-eremua da nagusi?

- a) eremu mediterraneo freskoa
- b) eremu atlantikoa
- c) kanarietako nekazaritza-paisaia

19.- Espainia ze ekintzatan da buru?

- a) Arrantzan
- b) Abeltzaintzan
- c) Nekazaritzan

20.- Ze abeltzaintza mota da nagusia Espainian?

- a) abeltzaintza intentsiboa
- b) abeltzaintza estensiboa
- c) a eta b zuzenak dira.